

Tokiko elkartasuna eta nazioartekoa



«Elkartasuna besteen sufrimenduaren aurrean daukagun erantzun kontziente bat da. Ez da soilik sufrimendua arintzea, baizik eta beste batzuek gizakion eskubideak baliatzeko dituzten arazo eta zailtasunak desagerraraztea».

Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseilua¹



AGENDA 2030



GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Desberdintasuna eta injustizia soziala

Justizia soziala funtsezko printzipio bat da gizakion arteko elkarbizitza egokia eta baketsua izateko. Hala ere, garapen ereduak ez du izan ardatz ondasun ekonomiko eta sozialen banaketa ekitatiboa; aldez, lehen tasuna eman dio hazkunde ekonomiko indibidualistari eta desberdintasun handiak sortu ditu lurralde eta pertsonen artean, dimentsio guztietan: gizartea, ingurumena, ekonomia, generoa, arraza eta abar. Arraroa da dimentsio ezberdinak banaka egotea. Lotuta egon ohi dira.

Desberdintasunen zabalkuntza da mundu globalizatuak aurre egin beharreko justizia sozialaren arazo larrienetako bat. Gaur egun, desberdintasunak areagotu egin dira, eta horren ondorioz pertsona-taldean arteko distantziak handitu, diru-sarrera, aukera eta kalitatezko zerbitzuak lortzeari dagokionez.

¹ Giza eskubideei eta nazioarteko elkartasunari buruzko azken dokumentuaren inguruko proiektua.

Gizarteek ez lukete desberdintasun egoerarik sortzen utzi behar

Desberdintasunak edozein gizarteren zimenduak ahultzen ditu, kohesio soziala ahultzen du, garapena oztopatzen du eta bakeari mehatxu egiten dio. Boterea eta aberastasuna gutxi batzuen esku egoteak krisi ekonomiko eta sozialak areagotzen ditu eta indarkeria eta gatazka soziala sortzen ditu.

POBREZIA DESBERDINTASUNAREN ONDORIO ZUZENA DA

01

Bizimodu duina izateko beharrezko baliabideak, gaitasuna, aukerak eta boterea ukatu egiten dira etengabe.

02

Desberdintasunak bezala, pobrezia ere dimentsio ugari ditu: Elikadura pobrezia, bizi-tegi pobrezia, osasun arloko pobrezia, energia arloko pobrezia, hezkuntza pobrezia, mugigarritasun pobrezia eta abar.

03

Pobrezia egoeran daudenen oinarritzko giza eskubideak etengabe urratzen dira.

04

Elikadura arloko segurtasuna dagoela esan dezakegu pertsona guztiak daukatenean uneoro elikagaiak lortzeko aukera, bizimodu osasungarria eta aktiboa izateko elikadura-beharrizanak estaltzeko moduan.

05

Munduko milioika pertsonaren elikadura-segurtasuna erronka handi bat da oraindik ere.

06

Baldintza egokietan ez dagoen etxebizitza batean bizitzea, edateko urik ez edukitzea, hezkuntza-aukerarik ez izatea, elikagai egokiak kontsumitu ezina, langabezian egotea edo enplegu prekarioa edukitzea... horrek guztiak pertsonen osasunean eragiten du, baita gaixotzeko moduan eta izurrite eta gaixotasun arruntak gainditzeko aukeretan ere.

07

Bizi-baldintzak arau batzuen ondorio dira; aberastasuna, boterea eta bestelako giza baliabideak nola banatzen diren erabakitzen duten arau, politika eta ekintzen ondorioa.

08

Bizi-baldintzen desberdintasunak nazioarteko migrazio-fluxuak handitzen lagundu du. Gosete kronikoetatik ihes egiteko, lan aukerak bilatzeko edo hezkuntza eskubidea izateko beharraren ondorioz, milioika pertsonak utzi behar izaten dute euren herrialdea, haienzako eta haien senideentzako biziraute eta duintasunaren bila.

09

Milioika pertsonak utzi behar izaten dute beren etxea gatazka armatuen, giza eskubideen urraketen edota orokorrean indarkeria egoeren ondorioz.

Errefuxiatua

Arraza, erlijio edo nazionalitateagatik edo talde sozial edo politiko bateko izateagatik jazarpena pairatzeko beldur arrazoituaren ondorioz bere jatorri-herrialdetik irten den pertsona bat (Genevako Hitzarmena, 1951).

Ez da gauza bera...

Barne desplazatua

Gatazka, jazarpen edo hondamendi naturalagatik bere etxea utzi behar izan duen baina bere herrialdean jarraitzen duen pertsona.

Asiloa eskatzen duena









Bere herrialdeko eskubide urraketan eta agintarien aldetik daukan babesik ezaren aurrean, nazioarteko babesa eskatzen duena. Asilo eskubidearen oinarritzko printzipioetako bat «ez itzultzea» da.

Milurtekoko Garapen Helburu horietatik, Garapen Iraunkorreko Helburu hauek

Milurtekoko Adierazpenak, 2000. urtean 189 herrialdek sinatutako dokumentu historikoa, honako konpromisoa jaso zuen: 2015erako giza garapeneko zortzi helburu lortzeko konpromiso globala, **Milurtekoko Garapen Helburuak (ODM)**, hain zuzen. Horien artean daude, adibidez, muturreko gosea eta pobrezia erdira jaistea, berdintasuna sustatzea eta haurren hilkortasuna murriztea.

Adierazpenak markatutako epea pasata, finkatutako helburu batzuk betetzeko bidean aurrerapen nabarmenak egin diren arren, hala nola muturreko pobreziaaren aurkako borroka, aitortu behar da aurrerapen-maila ez dela orekatua izan helburuen artean, eta ahalegin eta baliabideak areagotu behar direla. Izan ere, milioika pertsonak jarraitzen dute bizimodu duin bat izateko gutxieneko ongizaterik gabe.

Garapen Iraunkorreko Helburuak eta **Agenda 2030** delakoa 17 helburu globalez osatutako multzoa dira. Pobrezia desagerrarazteko, ongizatea bermatzeko eta planeta babesteko neurriak dira eta 2030a baino lehen burutu behar dira. Nazio Batuen Batzordeak onartu zituen 2015eko irailean eta Milurtekoko Helburuekin ikasitakoa gehitu diote. Gizarteratzea, garapen ekonomikoa eta ingurumen arloko iraunkortasuna maila berean baloratuko diren mundu iraunkor bat eraikitzeko.

ODM (2000-2015)	
	1. Muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea
	2. Lehen Hezikuntzako irakaskuntza bermatzea
	3. Sexuen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalgintza sustatzea
	4. 5 urtetik beherako haurren hilkortasuna murriztea
	5. Amen osasuna hobetzea
	6. GIB/HIESA, malaria eta beste gaixotasun batzuen aurka borrokatzea
	7. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea
	8. Garapenerako munduko aliantza sustatzea

ODS (2015-2030)	
	1. Pobrezia desagerraraztea
	2. Goserik ez
	3. Osasun ona
	4. Kalitatezko hezikuntza
	5. Genero berdintasuna
	6. Ur garbia eta saneamendua
	7. Energia eskuragarria
	8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
	9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
	10. Berdintasun ezak ezabatzea
	11. Hiri eta komunitate iraunkorrak
	12. Kontsumo arduratsua eta produkzioa
	13. Ekintza klimatikoa
	14. Itsas-bizitza
	15. Lurreko bizitza
	16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak
	17. Helburuetarako aliantzak

Ekonomia solidarioa

Ekonomia solidarioa aukera bideragarria eta iraunkorra da norbanakoen eta taldeen beharrezan erantzuteko eta gizakiaren garapen pertsonala, soziala eta ingurumen arlokoa bermatzeko.

Ekonomia solidarioak jardura ekonomikoaren erdigunean kokatu ditu pertsonak eta iraunkortasuna. Modu horretan, jardura ekonomikoak hainbat balio hartzen ditu; ekitatea, senidetze ekonomikoa, justizia, demokrazia parte-hartzailea eta elkartasun soziala. Horrela, elkartasuna ekonomiaren ezaugarri bihurtzen da, egitura eta prozesuak eraldatu behar dituen baliok, ez jardura ekonomikoak sortutako desberdintasunak zuzentzeko ekintza.

Ekonomia solidarioak gizarte mugimendu bat sortzea lortu du. Ekimen plural eta konpromisoak martxan jartzen dira: ekonomiaren **desmonetarizazioa**, **finantza etikoen** garapena, **enpresa sozialak** sortzea, **bidezko merkataritza** eta **merkatu soziala** sustatzea.



Tokiko elkartasuna

Elkartasunaren oinarria elkarren arteko dependentziaren ideia da, hau da, gure patua, nolabait, gainerako pertsoneri lotuta dagoela. Eta arazoak ez direla soilik sufritzen dituztenenak, baizik eta gizarte osoarenak.

Gure gizartean bidegabekeriaren eta bazterkeriaren aurka borrokatzeak gutako bakoitzaren elkartasuna behar du, baina baita politika publiko egokiak ere, bizimodu duina izateko zailtasunak dituztenei babes eta elkartasuna adieraziko dien politika publikoen sistema. Gizarte ongizateak eta gizartea osatzen duten pertsona guztion autonomiak prebentzio eta sustapen neurriak eskatzen ditu, baita bestelako babes eta laguntza neurri batzuk ere.

Babes soziala

Babes soziala politika publikoaren funtsezko tresna da. Desoreka ekonomikoa zuzentzen du eta gizarte solidario bat eraikitzen laguntzen du, aberastasuna modu egokian banatuz eta pertsona guztion giza eskubideak eta duintasuna errespetatuz.

Babes sozialaren euskal sistema dispositibo, zerbitzu eta prestazio batzuek osatzen dute, beharizan sozial batzuk eta egoiliarren eskubideak bermatzeko. Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DBE), Ongizate Sozialaren Fondoa, gizarteratze arloko Laguntza bereziak, Etxebizitza Prestazio osagarria, Gizarte Larrialdiko Laguntza, etxebizitza publikorako alokairu sozialak eta abar.

Babes ekonomikoaz harago aniztasuna kudeatzeko politikak daude. Immigranteen integrazioa lantzen dute eta jatorri etniko, orientazio sexual edo bestelako baldintzetan oinarritutako diskriminazio faktoreak desagerrarazi nahi dituzte.



Gizarte boluntarioak

Gizarte boluntariotza herritarrek aktiboki parte hartzeko modu bat da. Ekin-tza antolatuak burutzen dituzte, bazterkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzen laguntzeko xedez.

Gizarte boluntarioen ekarpen nagusietako bat kapital soziala sortzea da. Ezinbestekoa da erabateko demokrazia parte-hartzaile bat eratzeko, pertsona guztiok arazoaren konponbidean lagundu dezagun eta aurrerapausoak eta ongizaterako aukerak sortu ditzagun.



Boluntariotza eta parte-hartze sozialerako agentzia. 2001ean sortu zen Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao Bizkaia Kutxa eta garapenerako EDE Fundazioaren arteko elkarlanetik eta Bizkaiko gizarte mugimenduaren babesarekin.

Nazioarteko elkartasuna

«Herri eta estatu guztion egitekoa da nazioarteko elkartasuna sustatzea». Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseilua

Elkartasuna nazioarteko harremanen funtsezko balioetako bat da. Izan ere, gizakion duintasun, berdintasun eta ekitatea mundu osoan defendatzeko erantzukizun kolektiboa dugu. Arazoei ekiteko unean –tokiko arazoetatik beste globalagoetara– kargak eta kostuak justizia sozialaren arabera banatu behar ditugu.

Garapenerako Lankidetzaz

Garapenerako lankidetzaz herrialde pobretuen aurrerapen ekonomiko eta soziala sustatzera bideratutako ekintzen multzoa da. Horretarako, pobrezia sortzen duten egiturak eraldatu, desberdintasunak erazuzi eta gizagarapen iraunkorren alde egin behar dugu. Nazioarteko elkartasunaren zehaztapena da.

Garapenerako lankidetzaz botere publikoek (Estatu mailako gobernua, autonomikoa, foru gobernua, udalak) eta gizarte zibilak egiten dute (GKE, unibertsitateak, sindikatuak eta abar), eta ekintza zuzenak zein sentsibilizazio eta heziketa jarduerak burutzen dituzte gure gizartearen garapenerako, kontzientziazio eta gizarte transformaziorako tresna gisa.

%0,7aren kanpaina. Nazio Batuen Batzorde Nagusiak 1980an erabaki zuen herrialde garatuak barne produktu gordinaren %0,7a bideratuko zutela garapenerako laguntza ofizial gisa. Ebazpen horren ondorioz mundu mailako mugimendu bat jarri zen martxan kontzientzia solidarioa garatu eta erakundearen artean aldarrikapen bat egiteko: Barne produktu gordinaren (BPG) gutxienez %0,7a munduko herrialde pobretuen garapenerako kooperazio proiektuetara bideratzea.



Euskal Erakunde Kooperanteen Elkartea - Euskal Fondoa. 1996an sortu zen Euskadin, deszentralizatutako kooperazio lana koordinatu eta babesteko. Helburua da herrialdeen arteko desberdintasunen ondorioen inguruan herritarrak sentsibilizatzea eta munduko ordena bidezkoago eta solidarioago baten alde lan egiteko beharraz ohartaraztea.

Eta zer egin dezaket nik?

Gizarte eta elkarbizitza ereduak guztion artea eraikitzen ditugu, gure eguneroko ekintzen bidez.

Aukera asko ditugu eskura elkartasuna praktikatzeko:

1

Gogoratu gizarte eta elkarbizitza ereduak guztion artean eraiki behar ditugula, gure eguneroko ekintzen bidez. Elkartasunean hezi.

2

Elkartasunean hezi

3

Elkarbizitza aniztasunean sustatu, topaketa eta elkarri entzutea sustatuz.

4

Ekonomia solidarioan oinarritutako produktuak kontsumitu eta zerbitzuak erabili.

5

GKEren bateko bazkide eta boluntario izan.

6

Injustizia soziala salatzen duten eta eraldaketarako alternatibak eskaintzen dituzten kanpainak babestu.

7

Sare sozialetan posizioa hartu eta elkartasuna adierazi.

8

Garapenerako kooperazioaren eraginkortasun ezari buruzko zurrumurruak gezurtatzeko informazioa jaso.

9

Arrazismoa eta xenofobia handitzen duten aurreiritzi eta estereotipoen aurka egin.

10

Gizarte gastuan eta garapenerako kooperazioan inbertitzea defendatu.

i

Gehiago jakiteko

- ↘ Garapenerako Lankidetzeta.Bizkaiko Foru Aldundia.
- ↘ Hirugarren Sektorearen Bizkaiko Behatokia.
- ↘ Bolunta.
- ↘ Bizitegi.Bazterkeriarik gabeko gizarte baten alde.
- ↘ lkuspegi@k:Gizarte Gaien Behatokia.
- ↘ Biltzen, Integrazio eta Elkarbizitza kulturalaren Euskadiko Zerbitzua.
- ↘ Garapenerako Kooperazioaren Euskal Agentzia.
- ↘ Euskadiko GKEen koordinakundea.
- ↘ Portal de Economía Solidaria.
- ↘ Naciones Unidas. La Agenda 2030 para el desarrollo sostenible.
- ↘ Agencia de la ONU para los Refugiados.